

telebista ♦ irratia **biharko programazioa**

**Alanis Morisseteren kontzertua**



ETB1 • 02:05etan  
Gaur goizaldean, Alanis Morissette abeslari ezagunaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

**biharko filmak** / Ane Muñoz

■ GILDA.

Gilda (Rita Hayworth), Glenn Ford eta George McReady... bai hirukote ederra, mitozaleen harribitxi paregabe hau protagonizatzen duena! Gildak jasoko duen zaplasteko ahaztezinak, Gildaren esku-larru beltzek, Gildak eskainiriko abesti eder pareak eta aho zabalik uzteko moduko eszena amaigabeek osatzen dute. Argumentua oso interesgarria da, eta are zoragarriagoa bihurtzen da eszenaratze eta antzeppen bikainei esker. Buenos Airesko kasino bateko jabea, Mundson jauna, haren emazte Gilda *femme fatale*-a eta Farrell lehenaren laguntzaile eta konfidantzako lagunak dira. Estreinatuz zenean, eskandaluzkotzat jo zuten; egun, barregarria da haiek biolento eta ausarta zela zioten eszena. Zaplastekoarena, alegia.

■ CHITTY CHITTY BANG BANG.

Nostalgikoentzat abentura zahartxo gozagarria da, nahikoa infantila, baina aldi berean halako xarma berezia duena. Dick Van Dyke (*Mary Poppins*) eza-guna, rol nagusian azaltzen da. Alboan, ahaztuta dauzkagun aktore erakargarriak topatuko dituzte. Ian Flemingen testu batean oinarritutako abentura musikala, auto hegalarri baten inguruan garatzen da.

■ BELLE EPOQUE.

*Two Much* komedia ezaguna ez zen existituko Truebak *Belle Epoque* filmatu izan ez balu; eta noski, Banderas mirestuak ere ez zuen Griffith anderearekin egun duen harremana sekula izango, lan honek Oscarra jaso izan ez balu. Hollywoodeko atekak zabaldu zizkion komedia goxo eta eder honek Trueba jaunari. Aktore talde erakargarria bildu zuen, elkarriketa onekin, eta Azkonaren gidoia gustu askorekin jarri zuen iruditant. Erritmo txukunak eta argazki eta soinu-banda zainduak asko laguntzen diote filmari.

**Eastwood eta Malkovich, arrisku bizian**

■ EN LA LINEA DE FUEGO. Akzioa eta intriga ederki konbinatzen dakien *thriller* garesti eta arrakastatsu hau, Clint Eastwood eta John Malkovich handiek protagonizatua bera, Petersen alemaniarren lan garrantzitsuena da. Argumentua, klasikoan eragin nabarmeneko da, eta ederki eratu da, bai eta Petersenek eritimo arin eta azkarrez filmatuta ere. Bi pertsonaia kontrajarri, bata bestearen parean, norgehiagoka ariko zaizkigu.

|   |  |
|---|--|
| <b>Rudolph, le renne au nez rouge</b> ▲▲<br>1998, R.Kowalchuc, 85 m. 09:05 C+(f)        | <b>Gilda</b> ▲▲▲▲▲<br>1946, Charles Vidor, 108 m. 23:20 ETB2                     |
| <b>Vuelve colmillo blanco</b> ▲▲<br>1993, Ken Olin, 103 m. 15:25 T5                     | <b>Belle époque</b> ▲▲▲▲<br>1992, Fernando trueba, 106 m. 23:40 T5               |
| <b>Angel para todo</b> ▲▲<br>1996, Michale Switzer, 88 m. 15:35 A3                      | <b>¡Socorro! ya es navidad</b> ▲▲<br>1998, Jeremiah S. Chechik, 97m. 00:35 TVE1  |
| <b>¡Vaya Santa Claus!</b> ▲▲<br>1995, Desmond Davis, 93. 15:40 TVE1                     | <b>La fuga de Segovia</b> ▲▲▲<br>1981, Imanol Uribe 23:45 ETB1                   |
| <b>La leyenda de pinocho</b> ▲▲<br>1996, Steven Barron, 90 m. 16:10 ETB2                | <b>Canción de cuna</b> ▲▲<br>1994, Jose Luis Garci, 97 m. 01:40 La 2             |
| <b>Se armo el belén</b> ▲<br>1969, J.L Saez de Heredia, 95 m. 17:45 TVE1                | <b>Los héroes millonarios</b> ▲▲<br>1973, Duccio Tessari, 76 m. 02:15 TVE1       |
| <b>Chitty, chitty, bang, bang</b> ▲▲▲<br>1969, D. Van Dyke, 136 m. 17:50 ETB2           | <b>Trés ángeles en el camino</b> ▲▲<br>1996, Robert Ellis Miller, 92 m. 02:15 A3 |
| <b>Sólo ellas... los chicos a un lado</b> ▲▲<br>1994, Christian-Jaque, 117 m. 20:30 La2 | <b>Un mundo para mí</b> ▲<br>1959, J.A de la Loma, 95 m. 03:20 La 2              |
| <b>En la línea de fuego</b> ▲▲▲▲<br>1993, W.Petersen, 123 m. 21:15 ETB2                 | <b>El dijo, ella dijo</b> ▲▲<br>1991, K.Wapis eta M. Silver, 115 m. 03:00 T5     |
| <b>La familia 30 años después</b> ▲▲<br>1999, Pedro Masó, 90 m. 21:30 A3                | <b>Alguién conocido</b> ▲▲<br>1965, Norman Tokar, 127 m. 03:20 La2               |
| <b>Mercury Rising</b> ▲▲<br>1998, Harold Becker, 106 m. 22:00 C+(e)                     | <b>Corazón de medianoche</b> ▲▲▲<br>1988, M.Chapman, 102 m. 03:35 TVE1           |
| <b>Un asesino algo especial</b> ▲▲<br>1995, Eric Launeville, 86 m. 22:00 T5             | <b>Siringo</b> ▲▲<br>1995, Kevin G. Cremin, 86m 04:05 A3                         |

▲ TXARRA ▲ ESKASA ▲▲ BALEKOA ▲▲▲ ONA ▲▲▲▲ BIKAINA



Rita Hayworth ederra da *Gilda* filmeko izar distiratsua.

ETB 1

- 06:30: **Kantuz bizi.** Musika saioa.
- 07:25: **Rockazoka.**
- 07:50: **Euskal Herriatik.**
- 08:30: **Euskal Herrirako garaia**
- 08:45: **Superbat.** Haurrentzako marrazki bizidun eta telesaila sorta: 'Superheroiak', 'Periko untxia eta beronen lagunen ipuina', 'Pedro eta Pablaren show berria', 'Dragoi basatia', 'Locomotive jauna'.
- 11:30: **Meza santua.**
- 12:35: **Eguberri kontzertua.** Euskadiko orkestra Donostiako orfeoiaik lagunduta.
- 14:00: **Gaur Eguna.** Albistegia.
- 14:25: **Txirri, Mirri eta Txiribiton.** 'Tortolika eta trombom' ikuskizun berria.
- 14:40: **Gabon kantak.**
- 15:50: **Hator kantari hator.**
- 18:00: **Urrezko pala.**  
Irindo-Rekalde / Ciskar-Undagorostiaga  
Daniel-Juan Pablo / Urkia-Torre.
- 20:00: **Albisteak.**
- 20:25: **Lazkao Txiki.** Marrazki bizidunak. 'Komunistak', 'Itsuaeren bista' eta 'Bista kontua'.
- 20:45: **Ehun urte kirolez kirol.** Mendeko kirol bilduma.
- 22:00: **Pilota.**  
Esain-Auxkin / Gonzalez-Arroyo II.  
Titin III-Elkoro / Eugi-Zezeaga.
- 23:45: **Zinema.**  
**Segoviako ihesa.**  
Zuz.: Imanol Uribe .  
Akt.: Xabier Elorriaga, Ovidi Montller. 1981.
- 02:05: **Kontzertua.** Alanis Morissette.
- 02:55: **Euskadi Gaztea.**
- 03:45: **Duplex.**
- 04:45: **Ikusgela.**
- 05:00: **Euskal espioitza.** 'Euskaldunak eta gerra hotza'.
- 05:35: **Herri musika sorta.**
- 05:50: **Gure lanbide zaharrak.**

ETB 2

- 07:00: **Voluntad de hierro.** Dokumentala.
- 08:00: **Lengua viva.**
- 08:30: **Tiempo para Euskal Herria.**
- 08:45: **Agur, Olenzero, agur.** Olenzero pertsonaiari buruzko filma
- 10:05: **El arca del siglo XXI.**
- 11:05: **Rutas de solidaridas.** Dokumentala.
- 11:35: **Charlotte Church, una voz angelical.**
- 12:15: **Gloria de Navidad con Jose Carreras.**
- 12:55: **Zombados 'Navidad'.**
- 14:28: **Teleberri.**
- 15:05: **La historia de Mr Bean.**
- 16:10: **Zinema.**  
**La leyenda de Pinocho.**  
Zuz.: Steven Barron.  
Akt.: Martin Landau, Jonathan Taylor  
17:50: **Zinema.**  
**Chitty chitty, bang, bang.**  
Zuz.: Dick Van Dyke.  
Akt.: Adrian Hall, Heather Ripley.  
20:28: **Teleberri.**
- 21:15: **Zinema.**  
**En la línea de fuego.**  
Zuz.: Wolfgang Petersen. Aktoreak: Clint Eastwood, John malkovich, René Ruso. 1993.  
**Gilda.**  
Zuz.: Charles Vidor. Aktoreak: Glen Ford, Rita Hayworth, George Mackready. 1946  
**La dama de la antorcha.**  
Columbia zinema produktorearen 75. urtemugako dokumental berezia.
- 04:25: **Adderly.** Telesaila
- 05:10: **Amaiera.**



irratia ♦

**Herri Irratia.** Musika izango da nagusi gaurko egunez Herri Irratian. Goiz partean errosarioarekin abiatuko da programazioa. Ondoren, *Gabonak Latinoamerikan* eta *Haize bolada* saioak etorriko dira, 14:00etan kirolak heltzen diren arte. Bazkalostean ere, Simon and Garfunkel, euskal abeslariak, Eguberrietako abestiak eta abar izango dira Herri Irratian. 18:00etarako, aldiz, Nemesio Etxanizi eskainiriko saio berezia prestatu du Lazaro Azkunek. Arra-

tsaldeko 20:00etan Mikel Markez etorriko da, eta *Oroimenezko Portua* saioa eskainiko du.  
**Euskadi Irratia.** Gaur egun berezia izango da Euskadi Irratian ere. Goizean, Arantxa Artzak eta Jesus Artetxek *Bide Batez* saioa eskainiko dute. Elkarrizketa ugari egingo dituzte, eta tartean albistegiak eskainiko dituzte. Arratsalde partean, 17:00etan hasi eta 19:00ak artean, Gabon

kantak izango dira entzungai, eta telefonoa ere zabalik egongo da, entzuleek parte har dezaten.  
**Arrate Irratia.** Gaur Eguberri eguna dela eta goizeko 10:00etan Zumaiako Gabon Koroaren kontzertua eskainiko dute. 11:00etan, Mutrikuko Elizarekin bat egin eta meza eskainiko dute. Arratsaldean musika izango da entzungai *Arratsaldeko musikaldia* izeneko saioan.